


BIO-EUSKARRIEN inbasioa Zer dira?



Lehen aldiz 2007an azaldu ziren Euskal Herriko eta Landetako hondartzetan plastikozko gurpiltxo horiek, eta denbora luzez enigma bat izan ziren. Azkenik, Surfrider Foundation Europe elkartearen Korsikako ordezkariak identifikatu zituen, eta orain, badakigu erabilitako uren tratamendurako erabiltzen diren bio-euskarriak direla. Bio-euskarri horiek araztegiatan, nekazaritzako elikagaien industrian (ardoak eta edariak, kontserbak, haragiak...), arrain-hazkuntzan eta zenbait bidaiari-ontzitan erabiltzen dira.

Nola erabiltzen dira?

Araztegiatan, erabilitako urek zenbait arazketa-tratamendu jasaten dituzte: Aurretratamendua (hondakin handienak kentzeko), dekantazioa (ura geldik uzten da hondakin astunak hondora joan daitezen). Azkeneko fasean bakteriak gaineratzen dira ureko hondakinak jan ditzaten. 2000 urtearen hasieran, Norvegiako unibertsitate bateko ikertzaileak ikusi zuten uretan euskarri bat sartzen bazuten bakteria horiek bertan finkatzen zirela eta horrela eraginkorra bihurtzen zirela.

Beraz, bio-euskarri horiek bakterientzako euskarriak dira, eta araztegiatiko urasketan oso kopuru handietan sartzen dira (uraren bolumenaren % 50, hau da, milaka eta kasu batzuetan milioika). Uraren fluxuarekin edo airea sartzean eragabe mugitzen dira, eta horrela, bakterien eraginkortasuna hamar aldiz handiagoa egiten da.

Nola iristen dira gure hondartzetara?

Oraingoz dakigunaren arabera, kutsadura horrek bi iturri izan ditzake:

1. Ustekabe puntualak

Azken urteotan, asko gertatu dira European eta Ipar Amerikan.

Euskal Herrian, 2009ko udazkenean milioika iritsi ziren paper-fabriketatik. Ozeanora Oriotik iritsi ziren eta bertako surfariak eta uren kudeatzaileak jaso zituzten. Artikulu

ugari agertu ziren prentsan eta Donostiako Udalak publikoki salatu zuen kutsadura hori. Susmoak egon arren, enpresa errudunak ez ziren ofizialki identifikatu.

2010eko otsailean, Corbeil-Essonnes udalerrian (Paris inguruan), milioika bio-euskarri iritsi ziren Sena ibaira araztegi batetik. Zenbait biztanlek jaso egin zituzten, eta polizia jakinaren gainean jarri zuten. Bi hilabete geroago Honfleurko hondartzan jaso zituzten. Pariseko bio-euskarriak ozeanora iritsi ziren!

2010eko otsailean, Galizian, Miño ibaian, arrantzaleek sareetan bio-euskarri asko agertzen zirela ikusi zuten. Kutsadurak egun asko iraun zuen. Bertako polizia jatorria ikertzen saiatu zen, baina ez zuen lortu.

2010eko martxoaren 30ean, Connecticuten (AEB), Grotoneko instalazioak milioi bat bio-euskarri galdu zituen.

2011ko martxoaren 6an, New Hampshiren (AEB), Hooksetteko araztegiatan, 4-8 milioi bio-euskarri alde egin zuten eta Merrimack ibaira iritsi ziren.

2011ko martxoaren hasieran, New York inguruan dagoen Mamaroneck araztegia izan zen bio-euskarri ugari bota zituena.

2011ko maiatzan, Kanadan, horietako milaka plastikozko borobil jaso zituzten Saint-Laurenteko ibaiertzetan.

2. Ohiko ihesak

Itxi gabe dauden uraskek gainezka egiten dutenean, euri asko dagoelako edo bio-euskarriak egokitu gabe dauden biltegiatan sartzen dituztenean (azalera edo isurbidean sarerik ez dutenean, sarea estaltzen denean...).

Aisiarako urmaletan «etxeko» arrain-haztegiak eraikitzen dituzten partikularren instalazioetan gertatzen diren ezbeharrak.